

A11

Jaio zitezen maiatz hilean...

1178. orria galdua den arren, ez dirudi poema honen zatirik galdu denik; ondo ulertzen da, behintzat, ezagutzen ditugun hasiera eta amaierarekin. Martin eta Flora (edo *Lora*) gazteak elkarrekin hazi dira, adin berekoak baitira eta horma hormaren kontra diren etxeetan bizi baitira. Hazi ahala, maitasuna sortu da bien artean, eta, susmo txarrei bidea ixteko, Floraren gurasoek etxean giltzaperatu dute alaba. Gazteek laster aurkitu dute erremedioa: etxe bien arteko horman zuloa egitea, bien arteko komunikazioa errazteko. Berez, Piramo eta Tisbe Babiloniako maitaleen fabula mitologikoaren hasieraren aldaera da, Piramo eta Tisbe ere elkarren ondoko etxeetan bizi baitziren, eta, harremanaren debekua gainditzeko, hormako pitzadura bat erabiltzen baitzuten. XVI-XVII. mendeetan kontakizun horren bertsio asko egin ziren gaztelaniaz (Gongorarena da ezagunenetakoa) eta Europako mendebaldeko beste literatura batzuetan, horietako batzuk irrigarriak.

<1179r>	Jaio zitezen ¹ maiatz hilean, amorioa hoekin; ² donzeileari Lora ereizan, ³ morroeorri ⁴ Don Martin. Egun batean jaio zitezen,	5
	Jaun Zerukoak gurarik, hoen gainean jarri zidin ⁵ amoremina ⁶ dulzerik. Mundua mundu formaduzkero, ⁷ oi ⁸ ez da jaio semerik ene ostean nor izan dan ⁹ hau baino gizon firmerik. ¹⁰	10
	Etse banatan bizi zirean, zeinak eusten alkarri, ¹¹ eurak biak oi ebilzen ¹² bapere baga lagunik gazte zirean artean, baina azkero ¹³ beti loturik. Zerren guztiak egon joazen ¹⁴ handiro admiradurik	15
	oi nola beti ebilten diran Martin da ¹⁵ Flora bakarrik,	20

¹ *Jaio zitezen*: ‘jaio ziren’.

² *amorioa hoekin*: ‘amorioa (jaio zen) horiekin’.

³ *Lora ereizan*: ‘Lora zeritzon, Lora izena zuen’.

⁴ *morroeorri*: ‘mutil gazte ezkongabeari’.

⁵ *jarri zidin*: ‘jesarri zen, jarri zen’.

⁶ *amoremina*: ‘maitemina’.

⁷ *formaduzkero*: ‘formadu zenetik, sortu zenetik’.

⁸ *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

⁹ *nor izan dan*: ‘izan dena’; erlatibozko esaldia da.

¹⁰ *firmerik*: ‘firmeagorik’.

¹¹ *zeinak eusten alkarri*: ‘zeinek elkarri eusten zioten’; hau da, bi etxeak horma hormaren kontra zeuden.

¹² *ebilzen*: ‘ibiltzen ziren’.

¹³ *azkero*: ‘geroztik’.

¹⁴ *egon joazen*: ‘egon ohi ziren’.

¹⁵ *da*: ‘eta’.

	aita-amaok efini dabe Flora oi enzerradurik, zerren bertati ¹⁶ jarri zirean	25
<1179v>	sospetxa gatxez ¹⁷ beterik. Amoraduok ekustenean ¹⁸ euren buruak loturik, haen bihotzak nunberebaita ¹⁹ egon joazen tristerik.	30
	Pensamentuak leukaela ²⁰ dolorez mantenidurik, remedioa bila zitezen, ²¹ eurenzat gora ²² kostarik. Bixeak ²³ alkar ekusterako holzori ²⁴ dabe iregi, ²⁵ ifini dabe miraderoa, bioendako zilegi. ²⁶	35

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A11 – Jaio zitezen maiatz hilean...(Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

¹⁶ *bertati*: ‘berehala’.

¹⁷ *gatxez*: ‘txarrez’.

¹⁸ *ekustenean*: ‘ikusten zituztenean, ikusten zituztelarik’.

¹⁹ *nunberebaita*: ‘edonon’; cf. A19: 35. Beharbada balio modala izan lezake, ‘segurki, itxuraz, dirudienez’ adiera alegia.

²⁰ *leukaela*: ‘zeuzkatela’.

²¹ *bila zitezen*: ‘bilatu zuten’.

²² *gora*: ‘garesti’.

²³ *Bixeak*: ‘bixeak, biak ala biak’.

²⁴ *holzori*: ‘holtz hori, horma hori, pareta hori’.

²⁵ *iregi*: ‘ireki, zabaldu’.

²⁶ *zilegi*: ‘eskura’.